



## **EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEN ERREKTOREORDETZAK BULTZATUTAKO ELEANIZTASUN PLANAREN BARRUAN ESKOLAK HIZKUNTZA EZ OFIZIALETAN EMATEKO PROTOKOLOA**

### **PROTOCOLO PARA OFERTAR DOCENCIA IMPARTIDA EN IDIOMAS NO OFICIALES DENTRO DEL PLAN DE PLURILINGÜISMO IMPULSADO POR EL VICERRECTORADO DE EUSKARA Y PLURILINGÜISMO**

Dokumentu honetan azaltzen dira **2012-2013 ikasturtean** irakasgaiak hizkuntza ez ofizialetan (ingeleza, frantsesa edo alemana) eskaintzeko egin beharreko urratsak. Honelako irakaskuntzaren ezaugarri nagusiak ere azaltzen dira, hala irakaskuntza eskaintzaren ikuspegitik nola irakaskuntza betebeharren ikuspegitik.

#### **1. UPV/EHUren ELEANIZTASUN PLANAREN BARRUAN ESKOLAK EMATEKO ESKARIAK**

Irakasgai bat hizkuntza ez ofizial batean eman nahi duen sailak baimena eskatu beharko dio Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzari. Irakasgai horiek izan daitezke berriak, aurreko ikasturteetan emandakoak edo lehendik hizkuntza ofizialetan emandakoak baina orain talde batean hizkuntza ez ofizial batean eskaini nahi direnak. Interesdunek I. eranskina bete behar dute eskaria egiteko.

Eskolak eman nahi dituzten irakasleek egiaztatuta izan behar dute kasuan kasuko hizkuntzan irakasteko gaitasuna, Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak emandako agiriaren bidez.

Ez da emango baimenik aukera askeko irakasgaietarako. Horrez gain, hirugarren zikloko programetan eskaintzen diren irakasgaiak ere (hau da, unibertsitateko master ofizialetako irakasgaiak eta berezko tituluetakoak) ez dira sartzen Eleaniztasun Planaren barruan, ezta ere Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailak (Atzerriko Hizkuntza espezialitatea) eta atzerriko filologien sailek eskaintzen dituzten irakaskak.

Eskariak egiteko epea **2012ko urtarrilaren 17ra arte** egongo da irekita.

En este documento se detallan los pasos a seguir para incluir oferta docente en idiomas no oficiales (inglés, francés o alemán) para el **curso 2012-2013**. También se describen las principales características de este tipo de docencia, desde el punto de vista de la oferta docente y del encargo docente.

#### **1. SOLICITUD PARA QUE LA DOCENCIA SEA AUTORIZADA DENTRO DEL PLAN DE PLURILINGÜISMO DE LA UPV/EHU**

El departamento que desee ofertar docencia en un idioma no oficial (sean asignaturas nuevas o asignaturas ya impartidas en cursos anteriores o bien un nuevo grupo de una asignatura ya impartida en los idiomas oficiales) deberá remitir una solicitud de autorización al Vicerrectorado de Euskera y Plurilingüismo. El Anexo I incluye el documento de solicitud a rellenar por las personas interesadas.

Para impartir docencia en el idioma solicitado es condición imprescindible que el/la profesor/a esté acreditado/a por el Vicerrectorado de Euskera y Plurilingüismo.

No se autorizarán solicitudes de asignaturas dentro del Plan General de Libre Elección. Tampoco se considerarán dentro del Plan de Plurilingüismo aquellas asignaturas que se oferten dentro de los Programas de Tercer Ciclo (Masters Universitarios Oficiales o Títulos Propios), ni las que se imparten en los Departamentos de Filologías extranjeras y de Didáctica de la Lengua y la Literatura (especialidad lengua extranjera).

El periodo para realizar esta solicitud se extenderá hasta el **17 de enero de 2012**.



## 2. ESKARIEN EBAZPENA

Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak aztertuko ditu eskariok, eta **2012ko urtarrilaren 31 baino lehen** emango die erabakien berri ikastegiei eta sailei.

## 3. ELEANIZTASUN PLANEKO IRAKASGAI BERRIAK GAUR PROGRAMAN GRABATZEA

Deialdia ebatzi ondoren, sailek ikastegiei jakinaraziko dizkiete ikastegiaren irakaskuntza eskaintzan grabatu beharreko irakasgaiak.

Irakaskuntza eskaintzaren proposamenaren 2. fasean grabatuko dituzte, 2012-2013ko irakaskuntzaren plangintzarako egutegiaren barruan, honako hauek kontuan hartuta:

- Ingeleseko taldeak honela grabatuko dira: goizekoak 61. taldea eta hurrengoak izango dira, eta arratsaldekoak, berriz, 66. taldea eta hurrengoak.
- Alemaneko taldeak honela grabatuko dira: goizekoak 71. taldea eta hurrengoak izango dira, eta arratsaldekoak, berriz, 76. taldea eta hurrengoak.
- Frantseseko taldeak honela grabatuko dira: goizekoak 81. taldea eta hurrengoak izango dira, eta arratsaldekoak, berriz, 86. taldea eta hurrengoak.
- Ikastegiek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte talde hauen ordutegiak eta euskarazko eta gaztelaniazko taldeenak bateragarriak izan daitezen, hau da, ordutegiak traba izan ez daitezen ikasleek irakasgai hauek hartzeko.
- Talde hauen ordutegiak gaztelaniazko eta euskarazko taldeen ordutegiekin batera argitaratu beharko dira eta, betiere, ikasleen matrikula aldia hasi baino lehen.

Proposatu nahi direnak ikasketa plan berrietako hautazko irakasgaiak baldin badira, Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren erabakia

## 2. RESOLUCIÓN DE AUTORIZACIONES

El Vicerrectorado de Euskera y Plurilingüismo resolverá las solicitudes presentadas y notificará las resoluciones a los Centros y Departamentos **antes del 31 de enero de 2012**.

## 3. GRABACIÓN DE LAS NUEVAS ASIGNATURAS DEL PROGRAMA DE PLURILINGÜISMO EN GAUR

Una vez resuelta la convocatoria, los departamentos informarán a los centros sobre las características de las asignaturas a grabar dentro de la oferta docente del centro.

Los centros procederán a grabar las asignaturas durante la Fase 2 de Formulación de Propuesta Oferta Docente dentro del calendario de la Planificación Docente del curso 2012-2013, teniendo en cuenta las siguientes observaciones:

- Los grupos en inglés se grabarán como grupos 61 y siguientes para los grupos de mañana, y 66 y siguientes para los grupos de tarde.
- Los grupos en alemán se grabarán como grupos 71 y siguientes para los grupos de mañana, y 76 y siguientes para los grupos de tarde.
- Los grupos en francés se grabarán como grupos 81 y siguientes para los grupos de mañana, y 86 y siguientes para los grupos de tarde.
- Los centros tomarán todas las medidas precisas para que los horarios de estos grupos sean compatibles con los de euskera y castellano, de tal manera que éstos no sean desincentivadores de la actividad.
- Los horarios de estos grupos deberán hacerse públicos en el mismo momento que los de los grupos de castellano y euskera y, en todo caso, antes del periodo de matrícula del alumnado.

En el caso de asignaturas pertenecientes a los nuevos planes de estudios a implantar, cuando la asignatura sea de carácter optativo, la



behin-behinekoa izango da, kasuan kasuko titulazio(ar)en hautazkoen behin betiko eskaintza zehaztu arte.

#### 4. ELEANIZTASUN PLANEKO IRAKASGAIEEN IRAKASKUNTZA BETEBEHARRAK ESLEITZEA

Hizkuntza ofizialetan emandako irakasgaietan ez bezala, 2012-2013 ikasturteetik, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- Irakasgaia ematen den lehenengo bi urteetan kredituak aintzat hartuko dira irakasgaien matrikulatutako ikasleen kopurua edozein dela ere. Kreditu horiek irakaslearen eta sailaren irakaskuntza betebeharretan sartuta agertuko dira irakasgaia ematen den ikasturtean.
- Hirugarren urtetik aurrera, berriz, irakasgaia eskaini eta kredituak kontuan hartzeko beharrezkoa izango da aurreko urtean **gutxienez 7 ikasle** egon izana **matrikulatuta**. Bestela esanda: aurreko urtean 7 ikasle baino gutxiago egon badira matrikulatuta, irakasgaia eskaini ahal izango da, baina kredituak ez dira kontatuko sailaren irakaskuntza betebeharretan.
- Gradu berrietan eskaintzen diren eta eten beharreko titulazioetako irakasgaien eduki eta kredituekin zuzenean baliozkotuko diren irakasgaiak, ondorio guztietarako, haien jarraipen gisa hartuko dira, titulazioen arteko baliozkotze ofizialaren arabera.

Edozelan ere, sailak esleituta daukan euskarazko eta gaztelaniazko enborreko eta nahitaezko irakasgaien irakaskuntza bermatu beharko du.

#### 5. APARTEKO KREDITUAK AITORTZEA

Eleaniztasun Planaren barruan eskolak ematen dituzten irakasleei aparteko kredituak onartuko zaizkie, Gobernu Kontseiluak 2006ko urriaren 5ean onartu eta 2009ko uztailaren 22an aldatu zuen arautegiaz bat.

resolución por parte del Vicerrectorado de Euskera y Plurilingüismo se considerará provisional, hasta que se determine la oferta de optatividad de la titulación o titulaciones a las que pertenezca la asignatura.

#### 4. IMPUTACIÓN DEL ENCARGO DOCENTE DE ASIGNATURAS IMPARTIDAS DENTRO DEL PLAN DE PLURILINGÜISMO

A diferencia de las asignaturas impartidas en lenguas oficiales, en este caso ha de considerarse que, a partir del curso 2012-2013:

- Los dos primeros años en los que se imparta la asignatura se contabilizarán los créditos independientemente del número de alumnos/as que se hayan matriculado en dicha asignatura. Los créditos aparecerán en el encargo docente del/a profesor/a que la imparta y del departamento en el curso en el que se oferte la asignatura.
- A partir del tercer año, para poder ofertar la asignatura y ser tenidos en cuenta los créditos, será necesario que la asignatura durante el año anterior hubiera tenido al menos **7 alumnos/as matriculados/as**. En caso de que hubiera tenido menos de 7 alumnos/as podrá ofertarse, pero sin que los créditos se contabilicen en el encargo docente del departamento.
- Las asignaturas ofertadas en los nuevos Grados que tengan una convalidación directa en contenidos y créditos con asignaturas de las titulaciones a extinguir se considerarán a todos los efectos como continuación de aquellas, según la convalidación oficial entre titulaciones.

En cualquier caso, la docencia troncal y obligatoria en euskara y castellano asignada al departamento deberá quedar cubierta.

#### 5. RECONOCIMIENTO DE CRÉDITOS EXTRA

La impartición de docencia en el Plan de Plurilingüismo implica reconocimiento extra de créditos según la normativa aprobada por el Consejo de Gobierno de 5/10/06 y modificada el 22/7/09.



Arautegiak dioenez, aitortuko diren aparteko kredituen kopurua irakasgaiaren kreditu kopuru bera izango da, baldin eta **gutxienez 7 ikasle** matrikulatu badira irakasgaiaren. Dena dela, gehienez ere 6 kreditu aitortuko dira. Hauek dira mugak:

- Aparteko kredituak irakaskai bakoitzerako gehienez ere bi ikasturtetan aitortuko dira, irakasgaia ematen duen irakaslea aldatu ala ez.
- Irakasle bakoitzari 6 kreditu aitortuko zaizkio gehienera kontzeptu honengatik, ematen dituen irakasgaiaren kopurua edozein dela ere, eta gehienez ere bi ikasturtetan.
- Irakasgaiak gradu berrietakoak badira eta zuzenean baliozkotzen badira, bai kredituz eta bai edukiz, desagertuko diren irakasgaiekin, eta haiengatik irakaskuntza betebeharren murrizpena eduki bada dagoeneko, ez zaie berriz ere aparteko krediturik aitortuko.

Irakasgaia eman eta handik bi ikasturtera agertuko dira kredituak irakaslearen eta sailaren irakaskuntza betebeharretan jasota. Salbuespen moduan, **irakasle ordezkia** lortuz gero, aparteko kredituak ordezkatatuko irakasleari irakasgaia ematen den ikasturtean bertan aitortuko zaizkio.

## 6. ORDEZKO IRAKASLEAK

Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak Eleaniztasun Planaren barruko irakasgaiaren baten ematen duen pertsona ordezkatzeko baimena eman ahal izango die sailei, eta hauek bitarteko irakaslea kontratatu ahal izango dute.

Horretarako, dagokion sailaren irakaskuntza betebeharrak eta gaitasuna eta Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren diru baliabideak hartu beharko dira kontuan.

Ordezkatzeko baimena ematerakoan, ondokoek izango dute **lehentasuna**:

- Hizkuntza ez ofizial berean eskaintzen

En concreto, se reconocerán un número de créditos extra igual al número de créditos de la asignatura impartida, siempre que hubiera habido estudiantes matriculados/as (**mínimo de 7 alumnos/as**) y con un máximo de 6 créditos de reconocimiento extra. El reconocimiento se hallará sujeto a las siguientes limitaciones:

- El reconocimiento de créditos extra se hará como máximo durante dos cursos académicos por asignatura, independientemente de que cambie el PDI que imparta la asignatura.
- Cada PDI podrá disfrutar de un máximo de 6 créditos reconocidos por este concepto durante un máximo de dos cursos académicos, independientemente del número de asignaturas que imparta.
- Las asignaturas ofertadas en los nuevos Grados que tengan una convalidación directa en contenidos y créditos con asignaturas de las titulaciones a extinguir y por las que ya se disfrutó de la reducción correspondiente no volverán a tener el reconocimiento extraordinario de créditos.

Estos créditos aparecerán en el encargo docente del/a profesor/a y del departamento dos cursos académicos después de haber sido impartida. Como excepción, si hubiera sido concedido/a un/a **PDI sustituto/a**, los créditos extra se reconocerán al/ a la docente sustituido/a en el mismo curso en que se imparta la asignatura.

## 6. SUSTITUCIÓN DEL PROFESORADO

El Vicerrectorado de Euskera y Plurilingüismo podrá conceder a los departamentos la sustitución la persona que imparta alguna asignatura dentro del Plan de Plurilingüismo, contratando un profesor o profesora de forma interina.

Para ello se tendrá en cuenta el encargo y la capacidad docente del departamento beneficiario y la disponibilidad económica del Vicerrectorado de Euskera y Plurilingüismo.

La **prioridad** a la hora de conceder la sustitución se dará en los siguientes casos:

- Asignaturas que forman parte de un



diren beste irakasgai batzuekin **blokea** osatzen duten irakasgaiak. Bloke hori bi eratakoa izan daiteke: kurtsoen arabera (kurtso bateko irakasgai-bloke bat) edo edukiaren arabera (adibidez, *Gramatika I*, *Gramatika II* eta *Gramatika III*).

- Ordezkapena **lehenengoz edo bigarrenez** eskatzen diren irakasgaiak.
- **Gradu berrietako nahitaezko** irakasgaiak.

Ordezkapen kontratuaren dedikazioa eta iraupena aldatu egingo dira: ordezko irakaslea kontratatzeke baimen-aldiko lehenengo bi ikasturteetan irakasgaiaren kredituak eta aitortutako aparteko kredituak gehitu beharko dira (muga 24 kreditukoa izango da, irakasleko eta mailako). Hirugarren ikasturtetik aurrera, irakasgaiari dagozkion kredituak ordezkatuko dira.

Nolanahi ere, irakaskuntza eskaintza bermatu behar da. Horregatik, eta dagokionaren arabera, lizentzia jaso duen irakasleak ordezko irakaslea kontratatatu ondoren erabili ahal izango du. Arrazoi edozein dela ere ordezko irakasleak kargua utziz gero, lizentzia eten egingo da.

**Ordezkatzeke eskaera irakasleen Errektoreordetzari** bidali behar zaio, 2012ko urtarrilaren 10etik 31ra bitartean, Irakasleen Kudeaketa Araudiko 9. eranskina, plaza aldi baterako betetzeari buruzkoa (ordezkapena), beteta.

**bloque** junto con otras asignaturas impartidas en la misma lengua no oficial. Este bloque puede ser de dos tipos: de curso (bloque de asignaturas de un mismo curso) o de contenido (por ejemplo, *Gramática I*, *Gramática II* y *Gramática III*).

- Asignaturas por las que se solicita sustitución por **primera o segunda vez**.
- Asignaturas **obligatorias de los nuevos Grados**.

La dedicación y duración de la sustitución concedida será variable: los dos primeros cursos en que se conceda sustitución se hará con arreglo a los créditos correspondientes a la asignatura más los créditos extra reconocidos, con un tope de 24 créditos por PDI y curso. A partir del tercer curso, sólo se sustituirían los créditos correspondientes a la asignatura.

En todo caso, la docencia debe quedar garantizada. Por ello, y según corresponda, la profesora o profesor adjudicatario de la licencia comenzará a disfrutar la misma una vez que la profesora o profesor sustituto haya sido contratado, quedando la licencia interrumpida si por cualquier motivo cesase la profesora o profesor sustituto.

La **solicitud de sustitución** deberá realizarse ante el **Vicerrectorado de Profesorado** mediante el Anexo 9 para la cobertura transitoria de plaza (sustitución) del Reglamento de Gestión de Profesorado entre el 10 y el 31 de enero de 2012.

Gidor Bilbao Telletxea

Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordea / Vicerrector de Euskara y Plurilingüismo

